

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2022 Foru Dekretua, uztailaren 26koa. Arte Eszenikoen Tailerra – AET Arabarekin loturiko zerbitzuen prezio publikoak onestea

Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunak dira oro har, besteak beste, bultzatzea, indartzea eta sustatzea lurraldearentzat interesgarriak diren pertsonen eta kultura erakundeen arte sorkuntza, kultura zabalkundea eta kultura jarduera. Horrela, bereziki dagokio Kultura Zuzendaritzari arte eszenikoen eta musikalen arloan jarduera artistikoak eta ikerketa eta hobekuntza bultzatzea, besteak beste.

TAE Araba, Arte Eszenikoen Tailerra 1977an sortu zen, eta hainbat fase izan zituen harik eta 1987an Arabako Foru Aldundiak antzerki irakaskuntza bultzatzea erabaki zuen arte, alde batetik, lokala lagaz, eta bestetik, PorpolTeatro SCLri laguntza ekonomikoa emanez, hark kudeatu baitu TAE Araba 1988az geroztik. Urte hauetan guztietan, Arte Eszenikoen Tailerra erreferentziazko zentro gisa finkatu da antzerki prestakuntzan.

Orain, Kultura eta Kirol Sailak erabaki du bere gain hartzea TAE Arabaren kudeaketa, eta kanpoko enpresa bat kontratatzea haren prestakuntza programa garatzeko; izan ere, sailak ez du horretarako giza baliabiderik.

TAE Arabaren kudeaketak berekin dakar eraikinaren mantentze lanekin, langileen kostuekin eta material suntsikorrekina lotutako zenbait gastu. Garestia denez, kostuak arrazionalizatzeko, ez da egokia zerbitzu hori doan eskaintzea herritarrei. Beraz, zenbait diru sarrera ezarri behar dira matrikula eta kuota gisa, azpiprograma desberdinei dagozkienak, bai edukien aldetik, bai hartzaileen aldetik.

Arabako Foru Sektore Publikoaren Tasa eta Prezio Publikoek buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak Arabako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa arautzen du bere artikuluetan.

Aipatutako 9/2018 Foru Arauaren 24. artikulua arabera, prezio publikoak zerbitzua emateak eragindako kostu ekonomikoak gutxienez estaliko dituen maila batean ezarri behar dira, eta aurreko parametroak baino prezio publiko txikiagoak ezarri ahal izango dira arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo interes publikokoak daudenean.

TAE Arabaren helburua da Arabako biztanleak arte eszenikoetara hurbiltzea eta haien ezagutza eta praktika bultzatzea, pertsona guztien kultura-eskubideen egikaritzea eta irisgarritasuna ziurtatuz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz. Helburu horiei begira, arrazoi garrantzitsuak daude TAE Arabaren zerbitzu prestazioaren kostua baino txikiagoak diren prezio publikoak finkatzeko:

– Herritarren kultura eskubideen eskuragarritasuna eta erabilera bermatzea (Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta ondorengo garapenak).

– Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea pertsona guztientzat (Garapen jasangarriko 2030 Agenda, garapen jasangarriaren 4. helburua).

– Berdintasunaren aldeko kultura politikak sustatzea (Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako, indarrean dagoen idazketan, 25. artikulua, kultura jarduerak).

Beraz, Foru Dekretu honen xedea da TAE Araba, Arte Eszenikoen Tailerarekin lotutako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea.

Dekretu hau izapidetzean, erregulazio onaren printzipioak bete dira. Horrela, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da prezio publikoen araudia onesteko beharra, eta gainera, neurrizko arau aldaketa da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienekora mugatzen baita: zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko prezio publikoak ezartzea.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago ordenamendu juridikoan txertatzea, bai eta hori ematen duen organoa gaitzea ere, foru arau batean ezarritakoaren garapena baita.

Gardentasun printzipioaren bermeari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Gardentasunari, Herritarren Partaidetzari eta Gobernu Onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 24. artikuluan xedatutakoa bete da, arauen testua entzunaldi izapidetzepean eta jendaurrean jarri baitzen.

Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteatutako erregulazioak, bere izaeragatik, ez dakarkie administrazio karga erantsirik edo alferrikakorik administratuei, zerbitzu jakin batzuegatik eska daitezkeen prezio publikoak ordaintzeari dagozkionak izan ezik, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagoa ere.

Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da, Kultura eta Kiroleko diputatuak eta Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak batera proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaurko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honen xedea da TAE Araba, Arte Eszenikoen Tailerrarekin lotutako zerbitzu akademiko eta administratiboengatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea.

2. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

Prezio publiko horiek ordaindu behar dituzte aurreko artikuluan zerrendatutako zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. artikulua. Modalitateak eta zenbatekoak

1. Urteroko ikasturte formatuaren arabera (eskola egutegiari jarraituz, urritik ekainera) programatzen diren etengabeko prestakuntzako ikastaroen prezio publikoek bi ordainketa mota izango dituzte:

a. Matrikularen zenbatekoa.

b. Hiru kuota.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako tarifa edo zenbatekoak honako hauek dira:

ASTEKO ORDU KOPURUA	MATRIKULA	3 KUOTA. BAKOITZA:	IKASTAROAREN PREZIOA
1:00-1:15	41,00 €	41,00 €	164,00€
1:30	54,00 €	54,00 €	216,00 €
2:00	67,00 €	67,00 €	268,00 €
2:30	78,00 €	78,00 €	312,00 €
3:00	91,00 €	91,00 €	364,00 €
4:00	110,00 €	110,00 €	440,00 €
4:30	123,00 €	123,00 €	492,00 €
6:00	157,00 €	157,00 €	628,00 €
8:00	165,00 €	165,00 €	660,00 €
12:00	193,00 €	193,00 €	772,00 €

3. Noizbehinka programatzen den prestakuntza espezifikoa: monografikoak edo tailerrak dira, eta horien prezio orokorra emateko kontratatutako pertsonaren lanbide ordainsariaren eta jardueraren ordu kopuruaren arabera da; antzerki profesionalizaziora bideratutako prestakuntza eta hurrei zuzendutako tailer ludikoak bereiziko dira, jai garaian programatuak, oro har.

Beraz, eskatu beharreko tarifak ordainsariaren arabera izango dira, hau da, jardueraren kostu globalaren arabera, eta honela ezarriko dira:

PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA: MONOGRAFIKOAK/TAILERRAK	MATRIKULA
A ordainsaria. ≤ 1.000 euro	30 euro
B ordainsaria. 1.001-1.999 euro	50 euro
C ordainsaria. 2.000 euro	60 euro

HAURENTZAKO LANTEGIAK	MATRIKULA
A ordainsaria. ≤ 1.000 euro	20 euro
B ordainsaria. 1.001-1.999 euro	30 euro
C ordainsaria. 2.000 euro	40 euro

4. artikulua. Hobariak

1. Urteko prestakuntza ikastaroetan bakarrik aplikatuko dira hobariak, baina ez dira metagariak izango. Kasu bakoitzean, inskribatutako pertsonarentzat onuragarriena dena aplikatuko da. Hauek dira:

a. Hasierako taldeetan eta gazteen taldeetan:

- Kategoria orokorreko familia ugarietako kideak. Kategoria orokorrean sailkatutako familia ugarietako ikasleek ehuneko 20ko murrizketa izango dute matrikulan eta kuota bakoitzean.

Honako hauek aurkeztu beharko dituzte: indarreko titulu ofiziala, foru aldundiak edo arlo horretan eskumena duen administrazioak emana, eta bertan adierazi beharko da kategoria orokorreko familia ugaria dela.

- Kategoria bereziko familia ugarietako kideak. Kategoria berezian sailkatutako familia ugarietako ikasleek ehuneko 50eko murrizketa izango dute matrikulan eta kuota bakoitzean.

Honako hauek aurkeztu beharko dituzte: indarreko titulu ofiziala, foru aldundiak edo arlo horretan eskumena duen administrazioak emana, eta bertan adierazi beharko da kategoria bereziko familia ugaria dela.

- Gutxienez bi seme-alaba matrikulatuta dituzten familien kasuan, matrikula eta kuota ehuneko 20 murriztuko dira bigarren ondorengandik aurrera.

Honako hauek aurkeztu beharko dituzte: Erregistro Zibileko jaiotza ziurtagiriak edo familia liburua.

b. Helduen taldeetan:

- Legezko langabezia egoeran dauden pertsonak ehuneko 20ko murrizketa izango dute matrikulan eta kuota bakoitzean.

Honako hauek aurkeztu beharko dituzte: Lanbideren edo beste erakunde eskudun baten "inskripzio aldien ziurtagiria" edo "inskripzio aldien txostena", inskripzioa egin aurreko zazpi egunetan egina.

- Diru sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edo biziarteko gutxieneko diru sarrera (BGDS) jasotzen dutenei adierazitako prezio publikoak ehuneko 20 murriztuko zaizkie.

Honako hauek aurkeztu beharko dituzte: Lanbideren edo beste erakunde eskudun baten agiria, kobratzeko eskubidea egiaztatzen duena.

c. Nolanahi ere, ehuneko 33ko desgaitasun maila edo handiagoa egiaztatzen duten ikasleek ehuneko 20ko hobaria izango dute matrikulan eta kuota bakoitzean.

Honako hauek aurkeztu beharko dituzte: irizpen tekniko fakultatiboaren kopia edo ezintasun iraunkorraren ebazpenaren kopia.

2. Artikulu honetan ezarritako hobarien onuradun izateko, interesdunek dagokion izaera izan beharko dute matrikula formalizatzean, eta une horretan aurkeztu beharko dute kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa. Egun horretan izaera hori izapidetze fasean badago, aitortzeko edo berrikusteko eskaeraren kopia konpultsatua bidez egiaztatuko da.

3. Kultura eta Kirol Sailak sistematikoki jasoko du matrikulatutako pertsonen eta hobari bakoitzaz baliatzen diren pertsonen sexuaren aldagaia, datu bereziak lortu ahal izateko, batetik, emakumeen eta gizonen parte hartzean dauden aldeak ikusarazteko, eta, bestetik, diskriminazio anizkoitzeko egoerak eragiten dituzten beste aldagai batzuen eragina ezagutzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua, indarrean dagoen idazketan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 20. artikulua arautzen duten bezala.

5. artikulua. Ordaintzeko modua

Izena eman ondoren, eta ikastaroa egin nahi duen pertsona onartu dela baieztatu ondoren, ordainketak epe eta baldintza hauen arabera egin beharko dira:

1. Ikasturte bakoitzean ezarritako epearen barruan ordainduko da matrikularen zenbatekoa.
2. Ikastaroaren gainerako zenbatekoa hiru kuotatan ordainduko da, helbideratutako ordainagiri bidez, eta horren kobrantza azaroan, urtarrilean eta martxoan egingo da.

6. artikulua. Ez-betetzeak, uko egiteak eta itzulketak

1. Matrikula ezarritako epean ordaintzen ez bada, dagokion ikastaroan plaza izateko eskubidea galduko da. Matrikula ordaintzeak ikastaroaren lehenengo asteetan joateko eskubidea emango du, lehenengo kuota kobratu arte.

2. Helbideratutako kuota baten ordainagiria itzultzen bada, interesdunari jakinaraziko zaio borondatez ordaintzeko 10 egun balioduneko epea hasi dela. Epe horretan ordaintzen ez bada, automatikoki baja emango zaio pertsona horri ikastaroan. Kuota bakoitzaren ordainketari esker, hurrengo hilabeteetan ikastarora joan ahal izango da, hurrengo kobratu arte. Beraz, kuotak ez ordaintzeak ez du zorrik sortuko, ez eta interesen likidaziorik edo errekargurik ere.

3. Ikasturtean zehar norbaitek plazari uko egiten badio eta uko egite hori kuoten bat kobratu aurretik gertatzen bada, ez zaio hurrengo ordainagirik igorriko, eta une horretatik aurrera matrikula eskubide guztiak galduko ditu.

4. Prezioa ordaindu behar duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

5. Ikastaro monografikoen kasuan, ordaindutako kuotaren ehuneko 85 itzuliko da monografiko edo tailerrera joan ezin bada eta gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada. Ikastaroa hasi ondoren ez da inoiz ordaindutako dirurik itzuliko.

7. artikulua. Prezioak eguneratzea

Foru Dekretu honetan ezarritako prezio publikoak eguneratu edo/eta aldatzeko, kultura eskumena duen saileko titularraren foru agindua beharko da, eta horrekin batera memoria ekonomiko finantzario bat aurkeztu beharko da, Arabako Foru Sektorre Publikoko Tasei eta Prezio Publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. artikulua. Kudeaketa eta likidazioa

Prezio publiko horiek kudeatzea eta likidatzea Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta kultura arloan eskumena duen sailaren bidez gauzatuko ditu, hargatik eragotzi gabe sail horrek bai-mena ematen duen erakundearen bidez egin ahal izatea, dauden administrazio kontratazioen arabera.

Azken xedapena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ